

Botanika lexikoa Eibarko etxe izenetan

JUAN SAN MARTIN

Aspaldi ekin nion gure herriko hitzen bilketa gairik gai egiteari; eginahala Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian emateko. Hala bete nituen burdingintzako hitz teknikoak, ornitologia eta mikologiakoak¹. Era berean botanikazkoen bilketan egin ditudan ahaleginak luze joan zaizkit ordea. Lan hori behar bezala burutzeko pertsona aukerakorik ez nuenez. Izan ere, gaztaroko Eibarren ez nuen izan teknika hitzen bilketarako eragozpenik, lantegietan zaharragoek eguneroko beharretan hala erakutsi zigutenez. Bestalde, ihizariak eta perretxikulariak ugari ziren hirian, ez zen zaila bilketa; baina, landareen bilketarako ez nuen izan horrelako aukerarik. Beraz, bilketa luzea bezain neketsua izan zait. Galde asko eta eskuliburu asko begiratzuz bete beharrezkoa, neurri handi batetan Toribio Etxebarriaren *Lexicón*-aren laguntzari esker².

Bildurik dudan botanika hitz zerrenda ehun eta hogeitik gorakoa da (lehenago agertu nituen hogeitahamaika perretxiku izen kontutan hartu gabe). Baina, orain hemen, Koldo Mitxelena adiskide zenaren omenez eskaintzen ditudanak landare tokizena jatorritzat duten hogeitahamar etxerenak soilik emango ditut.

Aipatu dudan luzapen hortatik atzera behatuzko ikuspegiak erakutsi dit berebiziko garbien honako prozesu hau funtsean landarea gai duen toki-izena zen parajeen eraikitako etxeak tokiarena hartzen duela, era berean etxe eraikitzetik deiturretara pasatzen zela, familia etxean oinarritzen zen aintzinako errejimen haretan. Baina, aurkeztu dudan lan honetan, guretzat, botanika hitzaren lekukotasunean datza garrantzia. Izate horri esker agiri idatziak maizago aurki genitzake eta horietan iker-tuz ihardun genezake botanika hitza eta bere noiztikakoaz.

Berdintsu izango zaigu lehen agirietan deitura, etxea edo leku-izena aurkitzea, herri batean lehendik kokaturik datorren etxearenarekin bat datorrenean. Elizan zein Udalean ziurta genezake. Herri batekotzat lekukotzean, herri berean besterik baldin bada ere, bereizgarri jakinak izango ditu. Otoi, herri berekoen bereizgarriak era hontakoak dira, etxe-izen berdinari gaineratzen zaizkionak, adibidez: *-zahar*, *-berri*, *-goena*, *-erdikoa*, *-barrena*, *-goikoa*, *-behekoa*, ... edo gehituak edo deribatuak: *-korta*, *-borda*, *-zalegi*, *-abeletxe*, ... era horretariko bereizkuntzaren bat dartenak, baina jatorrizko substantiboa hor izango dugu izenaren funtsean.

(1) J. San Martín, *Euskera*, III, 1958, 141-158; IV, 1959, 127-138; XX, 1975, 317-324; XXIV, 1979, 271-277. Hitz teknikoena gehigarri berritu nuen III *Semana de Antropología Vasca*, 1973, Bilbao, 1976, II, 373-381.

(2) T. Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* (= *Euskera*, X-XI, 1965-66, 1-659.)

Honako hau burutzeko, besteak beste, lehendik eginak nituen zerrendez baliatu naiz gehienik, etxeen izen jatorra eta lehen urteen lekukotasuna emateko: «Relación de caseríos del término municipal de Eibar, con citas cronológicas» alde batetik eta «Toponomástica eibarresa medieval» bestetik³.

Lehen katalogaturik nituen 206 etxeetarik, jatorriz landare izentzat jo ditudanak 42 baizik ez dira, beraiek 30 botanika hitz osatzen dutenak. Esan beharrik ez dut gehien-gehienok baserriak direla.

Zerrenda aurkeztean, hitza bera grafia gaurkotuaz emango dut, ondotik gaztele-razkoa eta botanika zientziakoa era teknikoarena, edonorren baliagarri izan dadin. Baina, azkenik, azpiko lerroan parentesi artean agiri zaharretan agertzen dena, bertan dagoen bezala eta urtea. Agirien berri zehatza jakin nahi duenak oinarrizten naizen bi lanetara jo beharko du.

agarratza, 'uva de espina', *Ribes uva-crispa*, *Ribes grosularia*, L.

(Gure mende honetara arte ez dut aurkitu baserri honen agiri idatzirik)

(h)agin, 'tejo', *Taxus baccata*, L.

(Aguinaga, 1597; eta Aguinti leku-izena 1498ko egurtza agirietan)

albizuri, 'heno blanco', *Holcus mollis*.

(Albizuri, 1498)

(h)altz, 'aliso', *Alnus glutinosa* Baertn.

(Alzua, XVI. mendean; Altzaga, 1793)

ametz, 'quejigo', *Quercus pyrenaica*.

(Amezabalegui, 1498; Amezaga, 1857)

aran, 'endrino', *Prunus sylvestris*.

(Beharbada hortik dator Arando, 1564, baina ez da gauza ziurra; dena dela *arantza baltza* da endrino eta bere frututzat oso ezaguna zaigun *arana* baserriak gurdibide ertzetan. Lekuizen bezala, 1498an aurkitzen dugu Arambalza).

ardantza, 'vid, viñedo', *Vitis vinifera*, L.

(Ardanza, 1540)

(h)aritz, *aretx*, 'roble', *Quercus robur*, L.

(Arizmendi, 1498; Areschuloeta, 1498; Arexita, 1514. Haritzaren frutua *ezkurra* edo *arixala*, «bellota», bietara ezagutzen da).

(3) CEEN IX, 1977, 61-90 eta J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. EHU/UPV Vitoria, 1985, 995-1006.

arta, *arte*, 'encina', *Quercus ilex*.

(Artaechevarria, 1632; Arteguieta, 1857, guk Arteitxa bezala ezagutu duguna).

azpi, 'acerolillo', *Pyrus terminalis*, Ehrh.

(Azpiri, 1516)

gisats, 'retama', *Sarothamnus scoparius*, W.

(Guisasola, 1498; Guisastu, 1759)

gorosti, 'acebo', *Ilex aquifolium*, L.

(Gorostieta, 1567, baina 1794tik Gorosta da)

inar, *kinar*, 'brezo', *Erica Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, L.

(Iñarra, 1498; Inarra, 1540)

ipurua, 'enebro', *Juniperus communis*.

(Ipurua, 1857)

ira, *iratz*, 'helecho común', *Pteridium aquilinum*, L.

(Iraegui, 1339; Irrargarri, 1600)

isats, 'retama, retama negra', *Cytisus scoparius*.

(Isasi, 1557; Ichaso, 1857, bigarren hau metatesiak bihurturik Gipuzkoako Goierrian den herria bezala).

legar, 'galio', *Galium mollugo*, L.

(Legarre, 1857).

ma(h)ats, 'vid', *Vitis vinifera*, L.

(Macharia, 1601)

madari, 'peral', *Pyrus communis*, L.

(Madalzaga, 1339, orain Malzaga edo Maaltza bezala ezagutzen den auzoan; sei etxe ziren hor Maaltza sustraitzat zeramatanak)

makal, 'álamo negro', *Populus nigra*

(Macalarro, 1857)

makats, *makatz*, 'peruétano', *Pyrus sylvatica*, L.

(Macazaga, 1498; eta beharbada 1857an Maquizcoa eta 1885an Makestua bezala agertzen zaiguna).

ota, ote, 'argoma, tojo', *Ulex europaeus*, L.

(Otaola, 1584)

pago, pagu, 'haya', *Fagus sylvatica*, L.

(Pagaegui, 1498, orain Pagei bezala ezagutzen dena; Pagoaga, 1595)

sagar, 'manzano', *Pyrus malus*, L. eta *Malus domestica*, L.

(Sagartegieta, 1603; Sagarbieta, 1857)

saharats, 'sauce', *Salix atrocinera*

(Sarasuegui, 1857)

untz, 'hiedra', *Hedera helix*, L.

(Unçqueta, 1193; Unzeta, 1609).

urki, urkitz, 'abedul', *Betula alba*, L.

(Urquidi, 1494; Urquizu, 1557)

urritz, urritx, 'avellano', *Corylus avellana*, L.

(Urruchain, 1857)

zumar, 'olmo', *Ulmus campestris*, L. eta *Ulmus procera*.

(Zumaran, 1498)

zume, 'mimbre', *Salix viminalis* eta *Salix rubens*.

(Sumendiaga, 1596)

Izen horietako batzuk, gaurko Eibarren ahoskatzen den eran, ez dira era jatorra-ekin erraz ulertzekoak. Aspalditik, *-aga* atzizkia galdua da; *-(t)egi > -ei* bihurtzen da eta z nahiz *ts* ere galduak. Horregatik, izen batzuren argitasunerako zenbait oharpen egingo ditut.

Hara adibideok: *Amezabalegi*, *Amasabalei*, eta, horrez gainera, eskribauren batek euskaldunaren ahozkera zuzendu nahirik, hiperkorrekzio horietako batean eroriz, *m* aldatu zuen *b*-ra, eta gaur munduan diren *Abanzabalegi* (*Abanzabalegui*) bakarrak eibartarrak dira jatorriz. *Arexita*, inoiz *Arejita* idazten zena, gaurko ahozkeran, baserriari *Arikitxa* deitzen zaio. Antzinako *Gorostieta*, aspalditik *Gorosta*, zeren deitura ere era honetara pasatu bai da. *Iñarra*, *Kiñarra*; *Iraegi*, *Irei*; *Irarragorri*, *Iragorri*; *Pagaegi*, *Pagei*; *Sagartegieta*, *Sartei*; *Sarasuegi*, *Sautxi*; *Urkidi*, *Urki*; *Sumendiaga*, *Sumendixa*, eta abar.

Sumendiaga zume sustantiboaz hartu dut, gure herrian euskararen z ahozkatzea, zenez inoiz erabili baldin bazen ere, aintzina galdua denez. Beste batzutan ere jarri behar izan dut nere eritzia. Adibidez, *maats* bi bokalekin ipini dut, Eibarren, frutua bera *mats* edo *matz* esanarren, horiek landaturik dauden soro edo baratzei maastia deritzaenez. Hor ohartuko gara *Matxaria*, *-dia > -ria* formara pasatuaz.

Itsaso (*Itxaso*) baserriarentzat *isats* hautatu dugu, metatesia iduritzen zaigulako, Gipuzkoako Goierrikoan bezala.